



• ASTERO GAIA •

Nekazaritza-erregaiak

Energia garbitzat saltzen den negozioa

Nekazaritzaren sektorea energia-iturri berriztagarri bihurtzen hasi da, eta duela urte batzuetatik, soja edo ekilorea landatzen dira biodiesela edo bioetanola bezalako bioerregaiak, edo hobe esanda nekazaritza-erregaiak, lortzeko. Denak, ordea, ez daude aukera horrekin ados, nekazaritzaren prezioak eta oinarrizko elikagaiak garestitu egingo baitira.



Multinazionalak euren eskuetan izango dute nekazaritza-erregaien negozioa eta horretarako, soroak, basoak eta elikagaiak hondatuko dituzte.

“**NEKAZARITZA ERAKUNDEAK**, kooperatibak eta industria eraldatzaileak, Espainiako Nekazaritza Ministerioak koordinatuta, akordioa negoziatzen ari dira zerealak, erremolatxa, ardoa, ekilorea, koltza edo soja landatzeko. Horrekin, biodiesela, bioetanola eta antzeko bioerregaiak eskuratzeko da helburua, industriarentzat errentagarritasuna eta lehengaien hornikuntzan segurtasuna lortzeko”. Horixe zekarren Madrilgo *El País* egunkariak, joan den urtarrilean argitaratutako albistean. 2010era bitarteko energia berriztagarrien garapenari buruz Europar Batasunak dituen aurre-konpromisoen testuinguruan kokatu zuen albistea. Horien arabera, Espainiako Estatuak gutxienez 1,5 milioi hektarea erabil

Nekazaritza-erregaiak

ditzake helburu energetikoak dituzten produkzioak lortzeko. EBk dituen helburu berrieekin, 2020rako horrelako lehengaien premiak areagotu egingo dira.

Inportazio asko (koltza batez ere) egin behar ko direla aurreikusten bada ere, xede horretarako landaketan azalera bikoiztu egin daiteke. Azken kanpainan, nekazariak Espainiako Estatuan 220.000 hektarea erabili zituzten nekazaritza-energetikoen laborantzarako, baina laborari askok euren zereala merkatuan animaliek eta pertsonak jateko saltzen den zereala baino askoz merkeago saldu zuten, horrelako produkzioak uztea pentsatu zuten. Bere aldetik, Energiaren Euskal Erakundeak (EEEk) bioetanola hornitzeko Hego Europako lehen gunek instalatu ditu Gipuzkoan eta Araban, EAE bioetanolaren nahasketaren banaketan aitzindari bihurtuz.

Zer dira biodiesela eta bioetanola?

Biodiesela jatorriz begetala den erregai berriztagarria da eta ekoizteko, lehengai berriztagarriak erabili ohi dira, bai olio-landareak –besteak beste, koltza, ekilorea edo palmondoa–, bai erabilgaitako olio begetalak. Bioetanola berriz, jatorriz begetala den alkohola da. Fabrikatzeko azukrean edo almidoian aberatsak diren lehengaiak erabili ohi dira, adibidez, erremolatxa, azukrekanabera eta zerealak. Espainiako Estatuko Petrolio Operadoreen Elkarteak biodieselaren alde egin du eta bioetanolak gehiago kutsatzen duela esan du.

Bioetanola eta biodiesela bezalako nekazaritza-erregaiak iruzurra eta trikimailu hutsa direla diote EHNE sindikatuko kideek eta EBko Nekazarien Koordinakundeak. Euren ustez, nekazaritza-lehengaien helburua elikagaiak ekoiztea da. Horrez gain, haien aburuz, multinazionalak lehengai horiek nekazaritza-erregai bihurtzeko duten interesa ez da berotegi efektuari aurre egitea, oraingo petrolio-ekoizleekiko dagoen mendekotasuna murriztea baizik.

Multinazionalentzako negozio

Iritzi guztiak bat datoz zera esaterakoan: nekazaritza-erregaien garapenak nekazaritza-produktuen eta, ondorioz, oinarriko elikagaien (ogia, esnea, arrautzak, oilaskoa...) garestitzea eragingo du. Washingtongo International Food Policy Research Institute-n (Elikagaien Politika Inbestigatzeko Nazioarteko Institutuaren) esanetan, nekazaritza-erregaien estrategiak %20 eta %33 artean igoko ditu prezioak 2010. urtean eta %26 eta %135 artean 2020an. Beraien lurretatik botako dituzten nekazariak ez dute onurarik izango, multinazionalak bai ordea. Multinazionalak energiaren negozio berri hau euren eskuetan izango dute, jendeari pentsaraziz garbiagoa dela. Hala ere, horretarako soroak, basoak eta elikagaiak hondatuko dituzte. Lehenengo eta behin artoa, palmondoaren orriak eta koltza txikitu eta

Nekroerregaiak



Frei Betto idazle brasildarrak *ALAI-América Latina en Movimiento* aldizkarian argitaratutako artikuluaren laburpena:

Grezierako “bio” aurrizkiak “bizitza” adierazi nahi du eta “necro”k, aldiz, “heriotza”. Landarez sortutako erregaiak bizitza al dakar? Lehen mailako irakaskuntzan nenbilenean, Brasilgo historia ziklotan banatuta zegoen: Brasilgo egurra, urrea, kanabera, kafea, eta abar. Sailkapen hura ez zen erabateko txorakeria. Gaur egun

nekazaritza-erregaien garaian murgilduta gaude erabat –“bioerregaiak” hitza desegokia da–.

Aro berri honen eraginez, elikagaien salneurria garestitu egiten da, Fidel Castrok salatuz bezala. Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) eta Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) uztailaren 4an zabalduz ikerketa batek zera dio: “Bioerregaiak eragin handia izango dute nekazaritzan 2007 eta 2016 urteen artean”. Nekazaritzako prezioak azken hamar urteetako batz bestekoaren gainetik egongo dira. Aleak %20tik %50era garestituko dira. Brasildarrek aurtengo lehenengo sei hilabeteetan

2006an garai berean baino hiru aldiz garestiago erosi dituzte jakiak. Ibilgailuei jaten eman behar diegu, jendea gosez uzten dugun bitartean. Motorrarekin dabiltzan 800 milioi ibilgailu daude munduan. Beste hainbeste pertsona bizi da desnutrizio kronikoarekin. Harrigarria da jakitea nekazaritza-erregaien aldeko jarrera sutsua duten gobernuen artetik batek ere ez duela zalantzan jartzen banakako garraio eredia; badirudi autogintzaren irabaziak ezin direla ukitu.

Dagoeneko elikagaien prezioek erritmo bizian egiten dute gora Europan, Txinan, Indian eta AEBetan. Han, arto ekoizpen ia osoa etanola egiteko erabiltzen denez, oilaskoaren prezioa %30 garestituko azkeneko sei hilabeteetan. Eta esnea %14 garestituko da aurtent. Etanol “made in USA”ren eraginez, urtebetean bikoiztu egin zen artoaren prezioa –zereal hori behar da etanola egiteko–. Arrazoia ez da yankiak arto zaleak direla. Kontua da artoa elikaduraren oinarriko osagaia dela txerrientzat, behientzat eta hegaztientzat; eta, ondorioz, abere hauen kumeak garestitu egiten direla eta horien bidez lortutako elikagaiak ere garestitu egiten direla (haragia, esnea, gurina eta arrautzak).

Gaur egun merkaturatu jaun eta jabe denez, Brasilen kanaberekin gertatzen den gauza bera gertatzen da AEBetan: soja, kotoia eta beste gai batzuk ekoizten dituzten nekazariak ohiko laboreak alde batera utzi eta nekazaritzako “urre” berriari heltzen diote: artoari –hemen kanabera da aipatutako “urrea”–. Horrek eragina du sojaren, kotoiaren eta elikadura-kate osoaren prezioetan, kontuan izanik AEBek esportatzen dutela munduko ale kopuruaren erdia. AEBetan

zukua atera beharko diote, erregai preziatuaren tantak lortzeko. Nazioarteko konpainia eta erakunde batzuek “energia-iraultza” berriaren antza hartu diote apustu honi, nahiz eta jende gutxiren esku egon. Hori dela-eta, petrolio, nekazaritza eta finantza-konpainia handiak elkarlanean ari dira sektorea lehenbailehen kontrolatzeko.

Petrolio eta energia-multinazionalak dagoeneko hasi dira mugimenduak egiten, 2010. urterako ekoizpen eta negozio-eskenatoki horretan

Nekazari koordinakunde
arabera, multinazionalen
interesa ez da berotegi
efektuari aurre egitea,
petrolio-ekoizleekiko
mendekotasuna
murriztea baizik

kokatzeko. AEB eta Brasil aitzindariak izan dira. Europar Batasuna izazko uztailan hasi zen eta ondorengo helburua ezarri dio bere buruari: energiaren fakturazioaren %10 nekazaritza-erregaiak izatea. Hilabete horretan bertan Petrobas brasildarrak eta Galp portugaldarrak hitzarmena egin zuten Brasilen urtean 600.000 tona olio-landare ekoizteko eta biodiesel komertzializatu eta banatzeko. British Petroleumek (BP) 360 milioi dolar eman zizkion Kaliforniako Unibertsitateari, biodieselaren eta bioetanolaren garapenean aurrera egin zezan. Korporazio handiek eta multinazionalak dagoeneko sinatu dituzte hitzarmenak erregai horiek garatzeko. Hala nola, azpimarratzekoak dira Chevron eta Volkswagen; BP, Dupont eta Toyota; edota Repsol, Total, Cargill eta Singentaren artekoak.

Bionor, aitzindari

Euskal Herrian –eta Espainiako Estatuan– Bionor enpresa aitzindaria izan da erregai horiek sustatzen. 2000. urtean, utopia zirudien txoferrei biodiesel saltzea. Orduan, Bionor enpresa sortu zen, zenbait erakunde publikoren eta olio-enpresetako buruen arteko proiektu gisa. Lau urte itxaron zuten Euskal Herriko eta Espainiako gasolindegietan gasolinaz eta biodieselaz osatutako nahasketa saltzeko. Lehen lantegia Araban eraiki zen 2001-2002an eta 2004an jarri zuten martxan. 15 gasolindegirekin hasi ziren eta hiru urte eta gero, hamar



Nekazaritza-erregaiak erabiltzen duten gasolindegiek ekilogiarearen irudia daramate.

behi, txerri, ahuntz eta hegazti-ekoizleen lobbyek presioa egiten diote Kongresuari, etanol-ekoizleei ematen dizkieten dirulaguntzak murriztu ditzaten. Nahiago dute etanola –kanaberatik sortutakoa– Brasiletik ekarri, abereen janariaren prezioa garestitu ez dadin.

Gaur egun desnutrizioa mehatxua da Hego Amerikako eta Karibeko 42,4 milioi pertsonarentzat, kontinenteko biztanleriaren %10arentzat alegia. Etanola ekoizteko eremuak handituz gero, arriskua dago etanola gizakiarentzat nekroerregai-harrapari bihurtzeko. Aurtun gobernuak etxaldeak zigortu ditu Brasilen, kanabera-soroetan langile gatibuak aritzen direlako. Eta itxura guztien arabera, Hego-Mendebaldean kanabera hainbeste hedatzeak soja Amazoniaren barruan ekoiztea ekarriko du. Horren ondorioz, erregioaren deforestazioa gertatuko da. Gogoratu behar da inguru honek dagoeneko baso arlo zabala galdu duela, Alagos Estatuaren lurraldea halako hamalau.

aldiz gehiago dituzte. Produktu hori saltzen duten gasolindegietan ekilorearen irudia ikus daiteke. 2004an lehen fakturazioa 5,6 milioikoa izan zen eta, hurrengo urtean, 68,3 milioikoa.

Bionorrek inportatu behar izan zituen lehengaiak, besteak beste soja edo ekilorea. Hasieran, enpresa horren asmoa olio birziklatuak erabiltzea zen –ospitaletatik, hotelatik eta antzeko lekuetatik ateratakoa–. Baina, azkenean, Brasilgo eta Argentinako soja eta ekilorea inportatzea erabaki zuten, Euskal Herrian eta Espainian ez baita, orain arte, industriarako zerealak edo ekilorea lantzearen alde egin.

Hego Euskal Herrian, biodiesela eta bioetanola ekoiztuko duten zazpi instalazio egitea aurreikusi dute. Lehen aipatutakoaz gain, beste bi lantegi daude martxan: bata Bilboko Portuan –bioetanola ekoizten– eta bestea Nafarroan. Bilboko Portuan biodiesela lantzeko beste lau instalazio egitea aurreikusi dute; bakoitzak 250.000 tona ekoizteko gaitasuna izango du. EAEk urtean 50.000 tona biodiesel ekoizteko asmoa du 2010. urterako eta urtean 220.000 tona bioetanol. ■

G P U N T U A
 IPUZKOAKO BERTSOLARI
 TXAPELKETA 2007



www.gpuntua.com

FINAL-LAURDENAK:

Azaroak 4, igandea
TOLOSA
Usabal Kiroldegia, 17:00etan



Aitor Mendiluze, Jon Maia, Nahikari Cabriñondo, Ibai Esotain, Irñski Apalategi, Beñat Castelmendi

Laguntzailea:  ARGIA

Helen Groome, EHNEko kidea

«Zer jango genuke Euskal Herria nekazaritza-erregaien soro bihurtuta?»

Ingalaterran jaioa, Madrilen basogintzari buruzko tesia egin eta Karrantzan (Bizkaia) bizi da aspaldian Helen Groome. EHNE baserritarren sindikatuan egiten du behar eta nekazaritza-erregaiak berarekin patxadaz hitz egiteko parada izan dugu.

LANDER ARBELAITZ

Argazkia: Alex Larretxi

Nekazaritza-erregaiak edo bioerregaiak petrolioaren ordezkoko ekologiko gisa saldu zaizkie hiritarrei azken urteotan. Hala ere, geroz eta gehiago dira ingurumenarentzat hain onak ez direla diotenak. Zein da zure jarrera?

Nekazaritza-erregaiak txarrak direla ikusten dugu; erabil ditzagula nahi dute, eta erabiltzen hasten garenean kaltea ez da bakarrik nekazari-erregaiarentzat izango, baita ingurumenarentzat ere. Gainera, guk ez dugu bio aurrizkia erabiltzen eta nekazal edo nekazaritza-erregaiak esaten dugu. 'Bio' horrek zentzu baikorra du jendarean, baina txarto erabiltzen dela uste dugu. Irudi positibo bat eman nahi dute, naturatik datorrela, berriztagarria dela, eta abar. Egia esan, soroak berriztagarriak dira, urtero lor daiteke energia, baina bio aurrizkiarekin gizarteari esan nahi diote "orain gu berdeak gara".

Nor eta zer interes dago nekazaritza-erregaien esplotazio honen atzean?

Interes ezberdinak daude. Hasteko, petrolio-entzuten batzuk hau lantzen hasi dira, petrolio eskasaren aurrean, 40-50 urte barru agortu egingo delako eta beste baliabide bat behar dutelako. Gobernu batzuk ere, estrategikoki, egoera nolakoa den ikusiz, haien interesetako energia-iturri gisa planteatzen hasi dira. Bestalde, nekazal interesak ere badira, nekazal girotik kanpokoak, enpresa handiekin tratuak ikusi baititu hainbatek.

zaritza-erregaien produkzioak gora egingo duela?

Dagoeneko ikusten dela uste dut. Ez da soilik horregatik izango, baina prezioak igo egin dira. Baliabide falta dago: artoa, garia... geroz eta zailagoak dira lortzeko eta beraz zaila da baserritarrentzat animaliak elikatzen lehengaiak lortzea. Adibidez, Karrantzan beti erosi izan dugu janaria leku batean eta aurten esan digu momentuz ez duela salduko, gero agian diru gehiago lortuko duelako. Hau jada espekulazioa da. Ez soilik nekazaritza-erregaiengatik, baina ondorio bat izan liteke. Euskal Herrian agian zorte gehiago dugu, baina hegoaldeko herrialdeetan kontua ez da izango elikagaiak garestiago ala merkeago lortu, lortzea edo ez lortzea baizik.



Zein da Euskal Herriko egoera, eta zein neurritan eragiten du nekazarien eta abeltzainen produktioan?

Momentuz gutxi, baserritarrak ez dira sartu, baina Eusko Jaurlaritzatik bultzatzen ari dira. Adibidez, artoarekin hasiko dira. Ikusten badute prezioa hobe dela, sartu egingo dira, merkatuaren legea da. Ez gaude ados horrekin, baina dena dela, gu jendea abisatzen ari gara hau iruzurra dela. Agian orain prezio ona izango dute diru-laguntzekin, baina urte batzuk barru merkatu osoa bost edo sei enpresaren eskuetan egongo da eta prezioa gero eta baxuagoa izango da. Diru-laguntzak gutxituko dira eta ezer gabe geratuko dira. Etorkizunerako hobe da hemengo beharrak lantzea, elikagaietarako eta animalientzako landatzea. Beste arrisku bat ere bada nekazaritza-erregaiekin, eta hori transgenikoen gaia da. Sartu nahi dituzte patata, erremolatxa eta arto transgenikoa erregai moduan, energia lortzeko.

Argi badago ez direla hain aukera ona, nolatan ari da hainbesteko gorakada izaten?

Faktore asko egongo dira. Adibidez, Europako Batzordeak energiaren ehuneko hainbat berriztagarria izatea lortzeko helburua du. Eta honelako iturriak berriztagarri bezala hartzen dituztenez, inertzia da nagusi. Portzentaje horretara heltzeko nekazaritza-energia lortu nahi dute. Halaber, argi dago energiaren enpresek interes ikaragarriak dituztela eta guk ezin dugu imajinatu ziurrenik zeinen lobby handiak diren, indar asko dute. Gainera, lana ongi egin dute Europar Batasunean diru-laguntzak eta abar lortzeko. Presio handia egiten dute. Azkenik, 'bio' hitza oso positiboa da, jendeak ona dela sinesten du eta aurrera egiten du bi aldiz pentsatu gabe.

Hiritarrei informazioa falta zaiela esan nahi al duzu?

Bai. Guk zer edo zer egiten dugu, ekologistek ere bai... baina informazio gehiago eta hobe izatea ona litzateke, instituzioen partetik. Zer da hau? Nondik etorriko da? Zer prezioarekin

eta zeren truke? Ez da bat-batean agertuko eta kito. Prezioa izango du, ondorioak... Uste dut jendeak jakingo balu zein ondorio izango dituen, eztabaida hobe izango litzatekeela Euskal Herrian. Hau kontuan izanda, agian merezi lezake pixka bat erabiltzea, ustiategi edo baserriren baten soberakinak adibidez, baina beti ere lokal mailan. Ideia esplotatzen hasten zaren momentutik, kaltegarria da.

EHNE nola dago egoera?

EHNE barnean ere eztabaida dago. Nekazari batzuek aukera gisa ikusten dute eta ahalik eta informazio gehien eskaintzen ari gara. Uste dut jendea hasia dela ikusten ez dela aukera ona, iruzurra dela. Baina afiliazioei, Eusko Jaurlaritzari eta baita gizarteari ere esan behar diegu.

Azken finean, nekazaritza-energia ez bada ona, zein da alternatiba? Zer egin behar du hiritarrak? Hobe al da gasolinarekin jarraitzea?

Eredu arazo bat dago, ezin dugu jarraitu ditugun ereduarekin. Orain ezin dugu esan petrolioaren ordean nekazaritza-erregaiak erabiliko ditugula. Hainbeste energia lortzeko Euskal Herri osoak nekazaritza-erregaien soro izan behar luke, eta zer jango genuke orduan? Ezin da. Nekazaritza-erregaien gaia lantzeko, lehenik pentsatu behar da: nik zer egiten dut? Nola alda nezake nire eredu hainbeste energia ez erabiltzeko? Talde guztietan, nekazal, ekologista, kontsumitzaile taldeetan gaia aztertu behar da, egiazko informazioa lortu –ez enpresen informazioa; eta jakin Nobel saria nekazaritza-energien aurka agertu dela– eta politikarien aurrean aurkeztu.

Ezin dugu inoiz ahaztu soroak lehenik eta behin elikagaiak lortzeko direla. Azken finean, nekazariak nekazaritza-erregaien aldeko apustua egin beharrean gure benetako beharren aldeko apustua egin dutelako bertako produktuak kontsumituko bagenitu, nekazariak ez litzukete euren ohiturak aldatu beharko. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>
helbidean, elkarrizketaren hainbat pasarteren bidean.